



BARREN

TOKIKOM

Motoz edonora



KANTU ETA DANTZA AFARIA, ANGEL MARIEZKURRENAREKIN

BARRENen 25. URTEBETETZEA OSPATZEKO



MAIATZAK 25, ostirala
MAALAKO parkean
16 €

Izena emateko:
Elgoibarko Izarra: elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus / 943 741 626
BARREN astekaria: barren@elgoibarkoizarra.eus / 943 744 112
(izena emateko azken eguna: maiatzak 21)



ELGOIBARKO IZARRA

BARREN



Familia irteera Oñatira

MAIATZAK 19, ZAPATUA

- Goizean, Txokolateixia Interpretazio Zentrora bisita
- Eguerdian, Oñatin bazkaldu
- Ondoren, Arrikrutz kobara bisita

15€ / 13€
10€ / 8€
(2-4 urte bitarteko umeak)



Izenematea maiatzaren 13ra arte izango da Elgoibarko Izarraren bulegoan edo www.elgoibarkoizarra.eus webgunean.
Zerbait gehiago behar izanez gero, deitu lasai 943 741 626 (Jon)



ELGOIBARKO IZARRA



BARREN



Elgoibarko Izarra




EUSKO LEGBILTZAZA
GOBIERNO VASCO

ELGOIBARKO IZARRA



Maiatzaren 25ean handia egitera goaz

Maiatzaren 25ean handia egitera goaz. BARRENen 25 urte hauetan azal-orria izan diren protagonista guztiak bildu nahi ditugu Kalegoen plazan, plaza bete jende dela argazkia ateratzeko. 1.077 portada izango dira ordurako eta beste horrenbeste lagun batzen dihardugu azkeneko hilabete t'erdian. Ez da kosta gabeko lana izaten ari, baina izugarria ari da izaten herritarrongandik jasotzen ari garen erantzuna, eta esan gabe doa ez dagoela guretzat hori baino hauspo hobirik.



Hitz egin dugu azal-orrian protagonista izan zareten gehienok, baietza eman duzue zuetako askok eta askok eta ordezkook topatu dizkiguzue egun horretan gurekin egon ezin duzenok. Eta lerro hauen bidez, gure eskerrik beroena eman nahiko genizueke zuei guztioi. Lotuta zaituztegunak baino jende gehiago ere agertu zarete, baina, gure azal-orrietan, nahiz arrazoi ezberdinek tarteko, zaila zaigun zuekin harremanetan jartzea. Horregatik, noizbait BARRENen azal-orriren batean agertu bazara eta gure deirik jaso ez baduzu, eskertuko genizuke gurekin harremanetan jartzea. Era berean, azala izan ez duzue-

nok ere izango duzue maiatzaren 25eko ekitaldian parte hartzeko aukera, nahi izanez gero. Izan ere, BARRENek gai orokor asko eraman izan ditu urteotan azal-orriera eta horiek eramateko ere jendea behar dugu. Beraz, egun hori gurekin batera ospatu nahiko bazenu, zatorz BARRENera edo deitu **943 744 112** telefono zenbakira, eta eman izena.

Maiatzaren 25ean, ia plaza osoa hartuko duen itxitura bat jarriko dugu, eta itxitura horretan sartuko dira azal eramaileak, 1.077 lagun guztira, azal bakoitzeko pertsona bat. Azal zenbakien arabera ordenatuko ditugu guztiak, goitik argazkia ateratzeko. Baina gure

asmoa bada egun horretan plaza bazter guztiak jendez betetzea ere, eta beraz, gonbidatuta zaudete guztiok. Azal-eramaile izango zaretenok gogoratu 18:00etarako agertu behar duzuela plazara, zuen azalak jasotzeko eta plazan dagokizuen lekua hartzeko. Argazkia 19:00etan izango da, baina oso garrantzitsua zaigu zuek 18:00etarako agertzea, ez baita erraza izango hau dena antolatzea. Egun horretan, azken orduko kontuengatik agertzerik ez bazenu edo zure lekuan beste norbait bidalteza erabaki baduzu, mesedez abisatu aurrez, guk ordurako zerrendak osatuta izango ditugulako.



Maiatzaren 25ean **BARREN-zaleen jaia** ospatuko dugu
Dagoeneko prestaketa lanetan hasi gara, baina zuokin batera egin nahi dugu.
BARREN denona delako! BARREN denok garelako!

Gurekin harremanetan jartzeko: **943 744 112** edo barren25urte@gmail.com

Ane Astiazaran

Itzultzailea



Euskaratik aranerara

tzuei begira jartzea ere, eta horixe egingo dut gaurkoan, Val d'Aranera salto eginez.

Val d'Aran Kataluniako ipar-mendebaldean kokatzen den nazio bat da, Pirinioetako bihotzean bertan. Nazio zapaldu bat beste nazio zapaldu batean. Hamaika ikuspegitatik aztertu dezakegu herrialde hau, baina ohi bezala, hizkuntzari helduko diogu oraingoan ere. Aranerari buruz ari gara, okzitanieraren aldaera bati buruz, alegia. Frantziar hitz egiten den okzitanierak euskarak, bretoiak, korsikerak edota katalanak jasandako patuaren antzekoa izan du frantziar Estatuaren

“Aranerari buruz ari gara, okzitanieraren aldaera bati buruz, alegia”

Gainontzeko hizkuntz komunitate zapalduen errealitatea ezagutzeak ematen digun leziarik handiena herrien arteko elkartzuna omen da. Hala ere, bestelako egoeretan dauden zenbait herriri kosta egiten zaie elkartzun horren funtsa ulertzea; botere-harremanak tarteko daudenean sortzen dira halako hartu-emanak, noski.

Hori guztia kontuan harturik, interesgarria iruditu zait euskararen txikitasunetik munduko beste errealitate linguistikoko ba-

hizkuntza politika zentralisten ondorioz. Okzitania guztian hizkuntza aitortu bakarra den Aranerak hein batean zorte hobea izan du, baina ezin esan dezakegu lasai arnasten duenik.

10.000 hiztun inguru ditu aranerak, eta 90ko hamarkadaren hasieran biztanleriaren %80 bazen ere araneraz mintzaten zena, 2015eko herri-galdeketek egun %26 dela adierazi zuten. Hezkuntzari dagokionean ere, ez du egoerarik onena erakusten, lehen hezkuntzan soilik baitago murgiltze-programa abian. Bigarren hezkuntzatik aurrera arlo soil izatera pasatzen da, eta irakaslea bera da ikasgaia irakasteko hizkuntza hautatzen duena.

Datu soilak dira, 10.000 hiztun eskasen identitatea zehazten duen egoeraren berri izateko, edota zapalduaren zapaldua izateak dakarrena agerian uztearren. Izan ere, erraza da gaztelaniaren inperialismoa salatzea, baina, nolabaiteko inperialismoa ote da katalanarena ere?



BARREN

ARGITARATZAILEA:

ELGOIBARKO IZARRA
Euskarazko Erakundearen Argitalaritza

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR

943 744 112

Publizitatea: 943 743 704

barren.publi@elgoibarkoizarra.eusbarren@elgoibarkoizarra.euswww.barren.eus

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarriki lekuz aldatzeko eskubidea. BARREnek ez du bere gain hartzen Irtzia, Hitz eta klik eta eskutitzak ataletan adierazita-koen erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia, Irati Agirreazaldegia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA** Zaloa Amaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Ibon Serrano, Ana Alberdi, Eire Vila, Manu Sanchez, Unai Villena, Iosu Juaristi, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpillaga, Julen Ansola, Edurne Izagirre, Alain Ulazia, Paula Heras, Enez Ezenarro, Jesus Jimenez, Mikel Artola, Iñaki Odriozola, Ander Soraluze, Arantza Etxeberria, Irati Agirreazaldegia, Jone Olaizola **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855

BABESLEA:

ELGOIBAR
UDALA
AYUNTAMIENTO

LAGUNTZAILEAK:

MENDARO
2000

Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCOKULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enantzikizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

► **FAMILIA ETA LAGUNAK**

Zein laburra den bizitza! Ez, ordea, lagunaren babes eta maitasuna. Egunerokotasunean murgilduta, badirudi ez dugula inoren beharrik eta inork ez gaituela behar. Lehenago edo beranduago, baina, denok sentitzen gara babesgabe eta noraezean. Eta orduan, ustekabean, ia konturatu gabe, ondoan ditugu behar eta maite ditugunak, baita erdi ahaztuta eta gutxien espero ditugunak ere. Ez daukat hitzik sentitzen dudana gutzia adierazteko; hortaz, nire eskerrik beroenak, bene-benetan, egun hauetan era batera edo bestera, gurekin egon zareten guztiok.

Sorkunde Juaristi

► **TAUPADA ANTZERKI TALDEA, 40. URTEURRENA**

Antzerki Taldekoak eskerrak eman nahi dizkuzuegu *Zelukristaloideak* antzerki proiektua gauzatzen lagundu zenuen guztiok.

Mari Jose Ubiria, Aurori Anton, Valerio Iñiguez, Nieves Maidagan, Arrate Iriondo, Teresa Arakistain, Kontxi Arano,

Lutziano Arregi, Manu Sanchez, Enkarni Migales, Gabi jatetxea eta Elgoibarko Udala.

Eskerrik beroenak baita ere erakusleihatara hurbildu zinetenoi, zuen txaloen berotasunarekin gure bihotzeko taupadak tau,tau,tau... mantentzen laguntzeagatik. Gora antzerkia eta gora zuek!

Edurne Lasa eta Joxemari Larrañaga

► **JUBENIL NESKEN ESKUBALOI TXAPELKETA**

Pasa den astean Estatuko Jubenil Nesken Txapelketako finalak Olaizagan hartu ondoren, SANLOK eskerrak eman nahi dizkio Elgoibarko Udalar bere laguntza ordainezinagatik; bai eta Federazioei ere, Estatukoari, Euskadikoari eta Gipuzkoakoari; CTARI ere bai (arbitroen batzorde teknikoari); lehiatu diren taldeetako zaleei beren portaera txalogarriagatik; lagundu diguten enpresa, denda eta taberna-jatetxeei ere bai; baita txapelketan lagundu duten klubeko jokalarien gurasoei ere. Azken finean, mila esker guztiok. Gure aldetik,

tinko jarraituko dugu gure helburu nagusiaren atzetik: gure gazteek kirol-jarduera osasungarriez goza dezatela, beren formazioan hain garrantzitsua dena. Mila esker guztiok.

Sanlo KT

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENen edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko dituhaz:

1. Eskutitz guztiak identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratu dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraok, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeek zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gazteleraz datoren eskutitzik argitaratuko.

EUSKARA SUSTATZEKO UDALAREN DIRU-LAGUNTZAK

Eskaerak aurkezteko azken eguna urriaren 31 izango da:

- Barnetegietan euskara ikasteko egonaldiak egiteko diru-laguntzak.
- UEUK, EHUK eta Hik Hasik euskara hutsean antolatutako ikastaroak egiteko diru-laguntzak.
- Elgoibarko establezimenduetako errotulu nagusia euskara hutsean edota irudi korporatiboa euskaraz edo ele bietan jartzeko diru-laguntzak.
- Herriko enpresetan euskararen erabilera bultzatzeko diru-laguntzak.
- Elgoibarko Udal Euskaltegitik kanpo euskara ikasteko diru-laguntzak. (jarduera honetarako laguntza eskatzeko azken eguna irailaren 28a izango da).

Eskabideak eta beharrezkoak diren agiriak aurkez ditzakete interesdunek HAZen, Herritarren Arreta Zerbitzuan (Santa Ana kalea 2, behean), edota telematikoki Udalaren webguneko Herritarren Atarian.

Informazio osagarria lortu nahi dutenek Euskara Sailean izango dute horretarako aukera (Tel.: 943 744 386, euskara@elgoibar.eus).



Industriako digitalizaziorako eta artezketarako zentroa inauguratu du Danobatgroup industria taldeak Elgoibarren

Ekuska zentro teknologikoak eta Danobatgroup industria taldeak Digital Grinding Innovation Huba (DGIH) inauguratu zuten eguaztenez Danobatgroupen Elgoibarko egoitzan. Digitalizazioaren eta industriako artezketaren alorreko soluzio berritzaileak ikertzeko eta garatzeko zentro berria da, eta teknologia arreratuak enpresei transferitzen laguntzea eta industriaren lehiakortasuna indartzea du helburu.

Inaugurazio ekitaldian izan ziren Iñigo Urkullu Jaurlaritzako lehendakaria, Ekonomiaren Garapena eta Azpiegituretako sailburu Arantxa Tapia, Gipuzkoako Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreaka diputatu Ainhoa Aizpuru, Danobatgroupeko zuzendari nagusi Pello Rodriguez, IK4-Idekoko zuzendari nagusi Nerea Aranguren, Mondragon Korporazioko lehendakari Iñigo Ucin eta Elgoibarko alkate Ane Beitia.

Danobatgroupen berrikuntzaren alde egindako apustuak bat da zentroa eta 6 milioi euro baino gehiago inbertitu dituen ekipamenduan. Ekipo guztiak elkarrekin konektatuta egongo dira, eta makinek eta



mekanizazio prozesuek emandako informazioa urrutitik eta denbora errealean eskuratu ahal izango dira gero interpretatu eta analizatzeko.

IK4-Idekoko zuzendari nagusi Nerea Aranguren azaldu du digitalizazio gune horren baitan landuko diren sistemek hutsategitei aurrea hartzeko, mantentze lane-

tako estrategiak aktibatzeko, energia aurrezteko eta ingurumeneko inpaktua txikitzeko alternatibak esperimentatzeko balioko dutela.

Danobatgroupen zuzendari nagusia den Pello Rodriguezek garbi du: "Zentroak industria arloan Euskadiren posizionamendua indartzeko balioko du.

Jolasak, bazkaria eta musika maiatzaren 19an, Kuadrilla Egunean

Elgoibarren Kuadrillen Eguna ospatuko dute maiatzaren 19an, udaberriko asteburuetan herriko erdigunean gazteen presentzia areagotzeko eta gazte lokaletako harremanak estutzeko. Hain zuzen ere, lau lokaletako bederatzi gazterekin antolatu dute Kuadrillen Egunerako egitaraua. Horretarako, herriko gazteek egunean zer egin nahi luketen jakiteko galdetegi bat egin zuten aurrena. Catering enpresei eta musika taldeei aurrekontuak ere eskatu zizkieten. Gazteen iritziak jasota, jolasak, musika eta bazkaria izango dira eguneko ekitaldi nagusiak. Eguerdian, 13:00etan hasi eta Mauxitxa txarangak alaituta, jolasak egingo dituzte gazteek herriko kaleetan.

Bazkaria izango da gero Maalan 15:00etan. Bazkaritarako txartelak erosteko azken eguna gaur, maiatzak 11 da. 5 euroan daude salgai Tantakan eta Malapen. Catering enpresa batek prestatu arren, bazkariaren bueltako lanetan gazteek hartuko dute parte. Arratsaldetik goizaldera arte musikak hartuko du lekukoa. 19:00etan Maalako parkean abiatu eta Eonian elektro-txarangak girotuko ditu kaleak. Gauean 23:00etan hasita, Maalan, Arrasateko Salda Dago punk-rock taldea, Elgoibar eta Eibarko Mugi panderoa erromeria taldea eta DJ Artetxe elgoibartarra arituko dira. Gaua biribiltzeko txokolatea banatuko dute 06:15ean.

Uraz eta ibaietaz hitz egin zuten Mendaroko ikasleek Udalbatzarrean



Eskolako Agenda 21 egitasmoan parte hartu duten Debarreneko ikasleek ura eta ibaiak gaia landu dituzte ikasturte honetan. Mendaroko ikasleek herriko egoeraren diagnostia egin ostean, ateratako ondorioak eta euren eskaera eta proposamenak herriko agintariei aurkeztu zizkieten Mendaroko Udalbatzar berezian. Bestalde, Deba ibaiko ertzak garbitzeko saioa ere egin zuten domekan, Mendaroko Udalak, Ludotekak eta Arno Guraso Elkarrekin antolatuta eta zabor ugari atera zuten uretatik. Batez ere plastikoak eta komunetik botatzen diren paper-zapiak bildu zituzten, baina baita hodiak eta pneumatikoak ere.

Ur-ihes batek kalteak eragin ditu Gotzon Garate liburutegian



Gotzon Garate Udal Liburutegia dagoen eraikineko ur zikinen hoditik ura irten zen joan zen asteburuan eta kalteak eragin zituen. Liburutegiko sabaitik sartu zen ura eta zapatutik ur potzua lehortzen eta urak zikindutakoa garbitzen aritu ziren. Altzairuez gain, DVDak, hainbat liburu eta liburu katalogoak gordeta zituzten artxibategiak kaltetu ditu urak.

Lapurretak izan dira Jausoroko bi etxebizitzatan

Jausoro plazako atari eta solairu bereko bi etxebizitzatan sartu ziren lapurrak maiatzaren 2an. Lehenengo ahaleginean, behatxuloa bere lekutik kendu eta handik atearen barrualdeko heldulekua mugitzeko tresna bat sartuta saiatu ziren sartzen, baina giltzaz itxita zegoenez, ez zuten lotu. Hala, atearen sarraila puskatuta sartu ziren gero. Bitxiak, dirua eta argazki kamera lapurtu zituzten, besteak beste. Logela hankaz gora laga zietela ere esan du jabeetako batek. Apirilean lapurreta kopuruak gora egin egin zuela sumatuta, zaintzak ugaritu ditu Udaltzaingoak.

Izena emateko aukera dago Gure Esku Dagoren giza katerako

Gure Esku Dagok antolatuta, 201,9 kilometro luzeko giza katea egingo da ekainaren 10ean, eta Elgoibartik eta Mendarotik ere pasatuko da. Herrietako batzordeak hasiak dira ordurako lanean. Elgoibarrek 1.000 lagun elkartzeko erronkari egin behar dio aurre, eta momentuz 160 lagun inguratu dituzte. Nolanahi ere, interesdunek badute, jakina, saretzeko aukera oraindik: maiatzaren 11n eta 26an eta ekainaren 1ean, 2an eta 9an Kalegoen plazan, eta maiatzaren 25ean, Maalan [Barixakuetan 17:00etatik 20:00etara, eta zapatuetan, 12:00etatik 15:00etara]. Bestalde, Tantikan, Kalan eta Txillarren ere badago izena emateko aukera. Mendaron, berriz, 500 lagun behar dituzte giza-katerako eta oraingoz barixakuetan 18:00etatik 20:00etara eman ahal izango dute, batzordekideek plazan jarriko duten mahaietan. Ekainaren 10erako herri bazkaria ere antolatuta dute Mendaron, eta sarrerak salgai daude Coviranen, 13 euroan (ostiralero postuan ere erosi ahal dira).

Mausitxako gazta hirugarren Idiazabalgo lehiaketan

Maiatzaren 5ean eta 6an Euskal Gaztaren Azoka egin zuten Idiazabalen. Gazta lehiaketako lehen bi sariak Idiazabalen bertan geratu ziren, eta hirugarrena Elgoibarko Mausitxa baserrikoek jaso zuten.

Euskal Lanbide Heziketako lehiaketak jokatu dira IMHn eta Mekan Torneatze, Fresatze eta Ibilgailuen espezialitateetan

Maiatzaren 7tik 11ra bitartean Euskal Lanbide Heziketako olinpiadak (EuskoSkills) jokatu dira IMHn eta Meka Elgoibarren. Eusko Jaurlaritzaren Lanbide Heziketako Sailburuordetzak antolatutako lehiaketa hauetan ikasleen trebezia azaltzeko egin dituzte probak.

Torneatze eta Fresatze probak egin dituzte aurten IMHn. Ikasleek piezaren planoak jaso eta denbora jakin batean makinan pieza egin dute, neurriak errespetatuz eta makinetan txandatu. IMHko Iker Bizente eta Markel Iturria ikasleek, CNC Torneatze proban hartu dute parte.

Meka ikastetxean, ibilgailuen teknologian oinarritutako lehiaketa jokatu zuten eguaztenean EuskoSkillsen baitan. Bost ordutan hainbat erronka egin behar izan zituzten: mekanikan kulata altsatu eta zilindro baten lasaiera neurtu; elektrizitatean polimetroarekin eta osziloskopioarekin diagnostia; pneumatikan zirkuitu pneumatikoen ebazpena; eta ibilgailuetan Seat Leon FR baten autodiagnostia eta Toyota Prius baten tentsio altuko deskonexioa. Lehen saria Egibideko Mikel Abascalek jaso zuen, bigarrena Mekako Asier Markuerkiagak eta hirugarrena Don Boscoko Unai Anguianok. Lehiaketan parte hartu zuen Mekako beste ikaslea Xuban Balerdi izan zen.



Menditxo tabernak irabazi du Mendaroko pintxo txapelketa

Joan zen asteburuan jokatu zen Mendaron VII. Pintxo Lehiaketa. Herriko 10 tabernak hartu zuten parte: Uztargi, Arrats, Lagun Betikoak, Luzaide, Menditxo, Txirristaka, Toki Alai, Aitz Beltz, Ormola eta Chow. Epaila teknikoak Menditxo tabernaren *Mendi7* pintxoari eman zion lehen saria, bigarrena Uztargiren *Mundu Beganua* pintxoari eta hirugarrena Toki Alairen *Pintxo Alairi*. Herritarrek emandako botoen arabera irabazlea ere Menditxo izan zen. Botoa eman zutenen artean Menditxo tabernan gastatzeko 50 euroko bonoa zozketatu zuten, eta Jose Miguel Rubio eta Julia Godoyk jaso zuten.

Jubilatu eta pentsiodunak ez daude amore emateko prest, eta protestei eusten diete



Elgoibarko jubilatuz eta pentsiodunek Herriko Antzokian bilera egin zuten, besteak beste pentsioen inguruko zein protesta eredu erabili erabakitzeko. Adostu zuten aurrerantzean hamabostean behin elkartzea Kalegoen plazan, 19:00etan, astelehenetan. Maiatzaren 7an jende ugari elkartu zen plazan eta hurrengo hitzordua hilaren 21ean izango da.



Eskertzak eta urteurrenak 943 744 112



Trinidad Matas Coro

2018ko maiatzaren 5ean hil zen, 93 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



Santi Arrese Cengotita

2018ko apirilaren 29an hil zen, 58 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



Santi Arrese Cengotita

2018ko apirilaren 29an hil zen, 58 urte zituela.

***Eguzkiak lurra bezala
zure irribarreak
gure oroimenak
berotuko ditu.***

Zure kuadrilla



Santi Arrese Cengotita

2018 apirilaren 29an hil zen, 58 urte zituela.

***Izan zarena,
erakutsi duzun kemena,
gure artean geldituko da
zugandik jasotako dena.***

Arrese lehengusuak





Fernando Bautista Moskuko Plaza Gorrian.

“Bidaiatzeko dena aurrez lotzeak ez du graziarik”

► FERNANDO BAUTISTA MOTO GIDARIA

“Beti bueltatzen naiz pozik nire bidaietatik, itzultzen naizelako; eta triste, bueltan natorrelako”, hori dio *El escondite de los viajes* blogean Fernando Bautista motozale elgoibartarrak. Motoz egiten ditu bidaiak guztiak, eta Argentinan, Patagonian barrena, egindako azken bidaiatik bueltan, motozale bizimoduari buruzko hainbat gorabehera kontatu dizkigu, mototik apenas jaitsi gabe, hori baitu eguneroko garraiobide.

- IRATI AGIRREAZALDEGI -

◆ Nondik datorkizu motoetarako zale-tasuna?

Umetan gustuko nuen motoen mundua, baina etxekoei beldurra ematen zieten motoek, beraz, baztertu egin behar izan nuen. Baina Ibizara joan nintzen bitzera eta hara iritsi nintzenean, eroso ibiltzeko motoa behar nuela iruditu zitzaidan. Erabaki, auto-eskolan izena eman, eta bi

asteren barruan azterketa teorikoa eta praktikoa gaindituta, gidabaimena lortu nuen. Motoa erosi, eta geroztik ez naiz handik jaitsi.

◆ **Ibizan irlan barrena ibiltzeko erabiltzen zenuen motoa. Orain, ordea, Elgoibarren bizi arren, ez duzu alboratu.**

Orain bidaiatzeko erabiltzen dut batik bat. Neskalguna Santanderren

bizi da eta bisitan motoz joaten natzaio. Baina ogi bila joateko, lanera joateko... ere hartzen dut motoa, baita euria egiten duenetan ere. Asko gustatzen zait euria ari duenean gidatzea, beti ere arropa egokia jantzita. Jendeak eroa banengo moduan begiratzen dit, baina arropa horiekin lehor-lehor joaten naiz. Ohi baino polikiago eta adiago gidatzen dut, eta

beraz, gehiago gozatzen dut.

♦ **Moto gainean bizi zarela esan genezake. Baina noizbait kalkulatu al duzu zenbat kilometro egin dituzun?**

Bai. 15 urte dira gidabaimena daukadala eta milioi erditik gora kilometro egin ditut orain arte. Ibizan bizi izan nintzenean, kilometro gutxiago egiten nituen lurralde txikia delako, baina gainontzean, urtean, 50.000 eta 55.000 kilometro artean egiten ditut.

♦ **Kilometroak aipatu dituzu. Motoz, hainbat erronka ere bete dituzu denbora eta kilometroak uztartuta.**

Ameriketan moto gainean milia ugari gidatzea oinarri duten lasterketa moduko batzuk antolatzen dituen elkarte bat dago, nahiz eta motoan ez den Ameriketan ibili behar. Iaz, Cadizen zegoen iloba bat bisitatzeko aitzakian, 1.000 milia (1.600 kilometro) egin nituen iaz 24 orduan. Beste lehiaketa bat ere egin nuen, BMWk antolatutakoa. Hilabetean ea zeinek kilometro gehien egin zen kontua, eta nik 2.500 kilometro egin nituen 36 orduan.

♦ **Horrelako erronken oinarria bidaiak dira, leku asko ezagutu dituzu urrutirako bidaiak eginda.**

Umetatik izan dut bidaiatzeko grina. Hasieran, beste bitarteko batzuekin bidaiatu izan nuen, eta orain, motoz. Urrutiko eta iritsi ezineko tokiak ziruditen lekuetara ailegatu naiz, eta ohartu naiz norberak nahi izanez gero, beti dagoela iristea. Denbora izanez gero, posible daez delako bestelako baliabide askorik behar. Orain Perito Morenon egon naiz azkena, eta aspalditik nuen hara iristeko ilusia.

♦ **Azken bidaiari Patagoniara joan zara, baina beste leku ugari bisitatu dituzu.**

Europar herrialde guztiak bisitatu ditut: Islandia, Lienchestein, San Marino, Andorra... horiek txikiak, baina gainontzeko guztiak ere ikusi ditut. Europatik kanpo Afrikan ere izan naiz, Marokon, Mauritania, Kenyan eta Senegalen. Azkenengo horretatik behar baino aurretik itzuli behar izan nintzen Ebola gaitzaren beldur. Kenyan istripua izan nuen. Motoa bideko zulo

“Ez da baliabide askorik behar motoz bidaiatzeko”

batean sartu, irauli eta hanka gainera jausi zitzaidan, dena belztuz. Lagun bat atera zen laguntza bila eta Masaiz betetako furgoneta batekin topo egin genuen. Adineko emakume bat gerturatu zitzaigun, sorgin edo azti itxurakoa, eta lurra hartu eta hankara bota zidan txistuarekin nahastuta. Konjuru bat egin zidan, eta nik gozatu egin nuen, aurrez sekula ez zitzaidalako halakorik gertatuko. Ez dakit ondoriorik izan zuen, baina hanka behintzat ez zegoen apurtuta ospitalera joan nintzenean. Japonian ere izan nintzen, eta azkeneko honetan, Patagonian izan naiz.

♦ **Zer moduzko bidaiari izan da azkena?**

Ikusgarria. Paisaiak sekulakoak dira, eta jendea oso jatorra; beti irribarretsu egoten dira. Gauza batek harritu nau: egin ditudan bidaiari guztietan gutxien habitatutako herrialdea iruditu zaidala. 100 kilometro egin eta han eta ez zegoen ez bidegurutzeko, ez etxe, ez ermita, ez ezer. Bidea, bai, bidea bazegoen, baina norbait topatzeko kilometro ugari egin behar dira han. Bidaiari lagun batekin egin nuen, eta arduraren handia zuen gasolina gabe geldituko ginelakoan; ni, aldiz, lasai. Ez

naiz sekula bidaiari guztiz lotu zalea izan. “Autoak baldin badaude, egongo da gasolina ere eta hodiren batekin aterako dugu autoren batetik edo ekarriko digute bidaiaren batean”, esaten nion.

Bidaiari gehienetara bakarrik edo neskalagunarekin joaten naiz, baina azken bidaiari hau aldizkari digital baterako lan bat egiteko izan da, eta beste lagun batekin joatea egin zait zailena, bizikidetzak alegia. Niretzat bidaiaren parte dira ezustekoak; dena aurrez lotzeak (gasolina non bota behar duzun, zein ezagutu behar duzun...) ez du graziaz. Baina norbaitekin bidaiatuz gero, derrigortuta gaude laguna agoantatzera.

♦ **Azken bidaiari lanera joan zara, ezta?**

Motoviajeros aldizkarian kolaboratzen dut hilero, eta zuzendariak gonbidatu nituen. *Motociclismo*, *Solomoto* eta beste aldizkariaren batzuekin ere kolaboratzen dut. Azken hiru urteetan salbu etxetik bertatik abiatu naiz motoz [azkeneko hirurutan hegazkinez bidaiatu du eta gero han hartu du motoa]. Urte batean, esaterako, lagun batekin Islandiara irten behar nintzen uztailaren amaieran, eta goiz horretan bertan banketxe kontu batzuk egitera joan nintzen, bidaiarako traste guztiak hartuta. Azken bidaietan kolaborazio horiek laguntza izan dira motoa lor

Dakarrek bidegurutzeko





Etana mendian, Sizilian.

tzeko. Kenyan lagun batek utzi zidan, baina Japonian, %70eko beherapena egin zidaten motoaren alokairuan. Oraingoan ere, motoa eta lehen asteko hoteletako egonaldia doan izan dira. Publizitatea da. Izan ere, bidaia bat egin eta argitaratu ostean, jendea galdezka etortzen bazait, enpresa horietara bidaltzen dut.

Orain gonbidapenak jasotzen ditut. Batzuetan, marketatik; beste batzuetan, nirea moduko motoa dutenek deitu izan didate haiekin joatera gonbidatzen. Horrelakoetan, baina, ezezkoa eman izan dut. *Motociclismo*, *Solomoto 30* pape-reko aldizkariak lehen ordaintzen zuten, baina orain, ez. Hala ere, aldizkarietan agertuz gero, markek deitzeko aukera handia dago, eta halakoetan haiek ordaintzen dituzte gastu batzuk: gurpilak, aberien konponketak, arropak, kaskoak... Diru asko da.

♦ **Bidaiak horren lotuta ez izateak beharbada herrialde horietako jendearekin gehiago harremantzeko bidea ematen dizu?**

Bai. Hala ere, elkarrekin zenbat eta jende gehiago joan, orduan eta jende gutxiago gerturaten zaigu. Gainontzean, tokiren batera bakarrik, motoz, nire pegatina guztiekin eta motoko maletekin iristen naizenetan beti etortzen da norbait, are

gehiago herri txikietan. Gainera, nik ez dut giltzarraporik erabiltzen, jendearekin fio naizelako. Elgoibarren ere uste dut hala izango litzatekeela. Errusiar bat iritsiko baliuz hona ni joaten naizen moduan, berehala gerturatuko litzaioke jendea. Herri txikiek badute hori. Hiri handietatik ihes egiten saiatzen naiz, hangoak gizagabeagoak iruditzen zaizkidalako.

Herrietara iritsi eta non ostatu hartu dezakedan galdetzean, batzuek beren

etxera gonbidatu izan naute, beste batzuek bazkaltzera... beti dago irtenbideren bat, ez herri txiki-txikietan bakarrik. Behin Montenegroko herri batera iritsi eta ilunabarraz gozatzera labar batera joan nintzen, baina ostatu bila hasi nintzenez konturatu nintzen hotel guztiak gainezka zeudela. Azkenengoan esan nien edozein txoko uzteko eta zakuan lo egingo nuela. Dei bat egin eta emakume baten etxera bideratu ninduten. Emakumea ka-

Senegalen, atsedena hartzen.



misoia jantzita aurkitu nuen, eta bere ohea utzi zidan. Berak sofara lo egin zuen. Hemen, beharbada, mesfidatiagoak izango ginatke ezezagun bat etxean sartzeko.

Nik jende asko ezagutu dut bidaietan, eta agur esateko ordua beti bada ere mingarri, askorekin mantentzen dut harremana gerora. Hala ere, zaila da harreman hori sendotzea.

♦ **Bidaietan herrietara iritsi eta jendearekin izaten duzu harremana. Jendeak gehienetan bisitatzen dituen tokiak, ordea, ez omen dituzu hain gogoko.**

Hotelik sekula ez dut erreserbatu, horrek leku zehatz batera iristera mugatuko nindukeelako. Beraz, batean eta bestean irakurrita gutxi gorabehera badakit toki bakoitzean zer dagoen eta zer interesa dakidakeen. Horixe kontuan hartuta abiatzen naiz beti. Bidaietan barrena gaueetan hurrengo egunerako plana egi-

“Bidaietan ezagututako jendearekin zaila da harremana sendotzea”

ten dut, eta saiatzen naiz jendearengana gerturatzen. Era horretan gidetan agertzen ez diren txoko asko ezagutzen ditut. Ni neu ere beste motozale batzuegana joaten naiz. Bidaiak irekiak uzten ditut beti: gertatu behar dena gertatuko da. Horixe nahi dut gainera.

Behin, Kopenhague inguruan Karen Blixen *Memorias de África* liburuaren idazlearen etxea bisitatzerako joan nintzen, eta oharkabean, aldamenekora joan nintzen. Pentsa, beraz, zein interes jartzen dudana esanguratsuak izan daitezkeen toki horietan.

laz, esaterako, Japonian, goiz oso bat terraza batean pasatu nuen, egonean.

Jendeak galdetu zidan ea hau eta beste ez ote nituen ikusi jende gehienak hara joaten denean ikusten dituelako, baina nik ezetz esan nien. Museo edo eraikin ezagunen izenak googlen sartu eta informazio eta argazki hobekak eskuratu daitezke. Nik nahiago dut gauza txikiekien gozatzea eta detaile txikiak ikustea. Batzuei, nire bidaietan berri eman diedanean, ea gaueetan ez ote naizen aspertzen galdetzen didate. Baina ez, gaueetan taberna edo txokoren batean mapa bat atera eta pare bat ordu ematen ditut norbaitekin berbetan. Hala ere, bakarrik egoten ere jakin egin behar da.

♦ **Beste bidaiarik ba al duzu aurreikusita?**

Momentuz ez. Bidaia asko ditut errekamaran, baina auskalo noiz egingo ditudan. Oraingoa, esaterako, ezustean atera zen. Joan nahi nuela argi neukan baina noiz ez nekien.

 <p>FABRIKAZIAREN ZENTRO AURRERATUA CENTRO AVANZADO DE FABRICACIÓN</p>  <p>ELKARRIZKETA L. ERROLDI L. ERROLDI</p>  <p>ESKOLA UNIVERSITARIA DE INGENIERIA DUAL</p>	 <p>INGENIARITZA DUALAREN UNIBERTSITATE ESKOLA ESCUOLA UNIVERSITARIA DE INGENIERIA DUAL</p>  <p>Inbividuak País Vasco Euzko Lehen Unibertsitatea</p>  <p>NAZIOARTEKO EKARITASUN CAMPUSA CAMPUS DE EXCELENCIA INTERNACIONAL</p>
<h1>HEZIKETA ZIKLOAK</h1>	<h1>INGENIARITZA GRADU DUALA</h1>
	
<p>Informazio saioa: Maiatzak 26 11:00etan Baieztatzeak: 943748265 www.imh.eus amaia@imh.eus</p>	<p>Informazio saioa: Maiatzak 26 11:00etan Baieztatzeak: 943748264 www.imh.eus ingeniaritza.ehu@imh.eus</p>

Bizikleta gaineko trapezista



Lizentzia txiki bat hartuta esango dugu zapatilak nola, hala jantzen duela bizikleta Alvarok. Duela urtebete inguru hasi zen trialsina egiten, eta iazko sanbartolomeetan Elgoibar Ikastolan egin zen trialsin erakustaldi batean barruraino sartu zitzaion harra. Gaur, Aretxabaletako Oztopo Trialsin klubean dihardu eta txapelketetan ere hasia da lehiatzen, bera baino zaharragoekin. Hasi besterik ez da egin, baina bizikleta gainean duen trebezia ikusita eta bildutako lorpenak aintzat hartuta, zeresana emango du mutilak. Bideoa: www.barren.eus.

- AINARA ARGOITIA -

Barikua da, eta plaza bete ume dago Mendarozabalen. Ba-loiarekin jolasean ari dira mutiko kuadrilla bat plaza erdian, eta plazaren ezker hegaleran, gurasoengandik ezkuturago eginda, berrikerian eta kromoak trukatzeko ari dira beste zenbait ume, harri gainetan jarrita. Leku horixe du jolasleku eta entrenatzeko-gune Alvaro Jimenezek, frontoiko harmailez eta plazako koskez gain. Duela urtebete inguru igo zen estreinakoz trialsineko bizikleta batera eta ordutik erabat kateatuta dauka trialsineko bizikletak. Asteazkenean, maiatzaren 2an, bete zituen 9 urte eta oparitu berri dioten kasko berria jantzita agertu da elkarriketara, bizikletaz jakina. Aretxabaletan sortu berri duten Oztopo Trialsin Klubeko kamiseta darama soinean, eta babesgarri puztua erraz antzeman dakiok kamiseta azpian. "Kaskoa eta babesgarri guztiak jantzi ezean, aitak ez dit bizikleta hartzen lagatzen", esan du. Aulkirik gabea da trialsineko bizikleta, zazpi bat kilo astun, eta ikustekoa da haren gainean mutilak daukan trebezia.

Oina lurrean ahal den gutxien jarrita, bizikletarekin bidean topatutako enbor, harri eta gainerako oztopoen gainetik jausika ibil-

tzea du entretenimendu Alvarok, eta txapelketetan lehiatzen ere hasia da, bera baino zaharragoekin. Astean behin, zapatatuta, Aretxabaletara joaten da Euskadiko eta Espainiako txapelduna izana den Aitor Muruarekin entrenatzera. Zortzi bat ume ziren taldean duela urtebete bera hasi zenean, baina ordutik taldea hazi egin da, eta gaur, orduan halako bi gehiago dira Oztopo Trialsin Klubean izena emandakoak: 7 eta 10 urteko hamabost bat, eta zaharragoak sei. Bere buelta gertuan, baina, ez du afizio bereko lagunik Alvarok. Mikel anaia gaztea ere hasi zen iaz berarekin batera, baina egunero entrenatu beharra ez zitzaion lehiatzea bezain erakargarri nonbait, eta baztertu xamartu du bizikleta. "Kirol zaila da trialsina, dedikazio handia eskatzen duena, eta oso gustukoa izan ezean, jai dago hemen. Mendarotik beste ume bat ere hasi zen gurekin Aretxabaletara joaten, baina laga zuen. Jarraitzeko derrigor gustatu behar zaio asko umeari, bere adineko gehienak futboleko dabilzalako egun osoan eta taldetik aparte ibiltzeko ere barne-indar handia behar delako adin hauetan. Sinistuta nengoen azkenerako futbolarri arrastatuko zuela, baina nire

pozerako, ez da hala izan”, zehaztu du Ibanek, Alvaro eta Mikelen aitak. Mikelek ez bezala, Alvarok beti izan du, baina, gurpil gaineko kiroletarako zaletasuna eta abildadea, eta baita eten-gabe saiatzeko kementa ere. “Oso umetatik igartzen zitzaien. Patinetea ez bazen, bizikleta zen. Sekula ez du baloiak erakarri”. Etxekoak konturatuta zeuden, baina kanpokoak ere laster ohartu ziren Alvarok bizikleta gainean zuen trebezia. “Arno guraso elkarteak eta Elgoibarko Lagunak taldekoek antolatutako txirindularitza ikastaro batean hasi zen dena. Ikastaroa amaitu zenean, Lagunak taldeko [Juan Ramon Bellon] Birras etorri zitzaidan esanez semeak dohai berezia zuela mendiko bizikletarako”. Ordurako hasiak ziren Alvaroren gurasoak ere zerbaiten bila, baina etxetik gertuen, Irunen topatu zuten trialsin eskola bat, eta urrutiruditzen zitzaien semearekin atzera-aurrera ibiltzeko. “Aitor Muruaren kontaktua pasatu zidan *Birrasek* eta halaxe hasi ginen Aretxabaletara joaten”. Eta hasi, eta gustatu. Entrenatzeari ekin eta hilabeteren barruan, gainera, iazko sanbartolomeetan, Elgoibar Ikastolako frontoian egin zen trialsin erakustaldi batean izan ziren familia osoa, eta han ikusitakoarekin liluratuta gelditu zen Alvaro. “Oso onak ziren. Oreka mantentzea eta atzeko gurpilaren gainean ibiltzea da zailena niretzat eta haiek salto handiak egiten zituzten gurpil bakarraren gainean”, dio Alvarok. Orduan aho zabalik utzi zuten piloto haietako batzuk gertutik ezagutzen ditu orain, txapelketetan lagun egin dituelako, eta haienak eta beste zenbait piloturen akrobaziak ere jarraitzen ditu Youtuben. “Aitor Muruaz gain, Benito Ros hamar aldiz munduko txapelduna izan dena eta Diego Barrio gustatzen zaizkit gehien. Barriok kaskoan ere sinatu zidan”, bota du.

TXAPELKETETAN ERE, FIN

Abenduan lehiatu zen estreinakoz txapelketa batean Alvaro, Nafarroan, eta joan zen astean bukatu zen Gipuzkoako Txapelketan ere aritu da, fin oso. Bost saio izan dira guztira, Hernanikoa, Errenterikoa, Aretxabaletakoa, Tolosakoa eta Irungoa, eta bostetan, pare bat urte zaharragoekin lehiatu da [bost kategoria daude: zuria, urdina, naranja, gorria eta horia, eta duen adinagatik berak zurietan lehiatu beharko lukeen arren, urdinekin dihardu lehiatzen]. Adin-diferentzia, baina, ez zaio traba izan,



bost saiotatik hirutan gailendu delako, eta bere adinekoen artean, Gipuzkoako Txapelduna izan delako. Hala ere, podiumeko goren mailara sarri igo bada ere, Alvaroren lorpenak lasterketa-eguneko sailkapenera mugatzen dira oraingoz, Gipuzkoako araudian hala dagoelako jasota: batetik, umeek txapelketetan lehiatzeko aukera dute, adina edozein dutela ere, baina ezin dira federatu eta ezta Gipuzkoatik kanpo lehiatu ere. Bestetik, lasterketetan sariak eta garaikurrak banatu arren, lorpen horiek ez dira inon jasotzen. “Ez zait justua iruditzen, baina hala dago araudia eta onartu egin behar da”, esan du Ibanek, semea gurpil bakarraren gainean saltoka ari den bitartean. Berea du orain bizikleta, bigarren eskukoa, baina hasi, entrenatzaileak lagatako batekin hasi zen trialsinean, eta eskertu dute Alvaroren gurasoek. “Konbentzita ikusi genuenean erosi genion bizikleta, lehen zeukan motorra saldua, motokrosa neuri ere gustau arren, arriskutsuegia iruditzen zitzaidalako semearentzat, eta era berean, afizio garestia ere badelako. Egia esan, eskertzen da hasi nahi duenari bizikleta lagatzea, bizikletak ez direlako merkeak eta umeekin ez dagoelako sekula jakitzerik”. Lehen eskuko bizikleta merkeena izango da 600-700 euro, eta 3.000 bat euro artekoak daude merkatuan. Aitor Muruak, baina, nahi beste denborarako lagatzen die ikasleei bizikleta, hilean hogeiturogatik. Larunbatero, ordu f’erdiz trebatzen da Aretxabaletan Alvaro, eta astebarruan bere kasa entrenatzen da, etxe bueltan. Alvaroren afizioa, baina, familia osoak egin du bere, eta hasita daude asteburuetan zirkuituz zirkuituko jiran. “Ez dago aukera handirik. gure bueltan, eta derigor irten behar kanpora!”.

Mendarorako proiektua ere idatzia du Ibanek eta aurkeztu ere egin zuen bere garaian udaletxean, baina Udalak begi onez ikusi arren, oraingoz gelditu dago. Proiektu hartan herriko belardi bat oreka eta psikomotritate lantzeko egokitzea jaso zuen Ibanek. “Ez zen propio trialsineko gune bat sortzea, kontziente naizelako afizio hau ez dagoela oso zabaldua eta ezin naizelako hasi nire semearentzako gune bat eskatzen, baina hemendik kanpora ikusi ditut halako gune batzuk eta interesgarriak iruditu zaizkit denontzat. Jolasleku ireki bat litzateke, oztopoen bidez umeek psikomotritate lantzeko”.

UDAKO INGELES IKASTAROAK

Uztailaren 2tik 27ra

Ingeleseko Cambridge, KET, PET, FCE eta CAE
mailetarako prestakuntza zehatza.

GOIZEZI!
TALDEAK
(6-8 ikaslekoak)



Cambridge Unibertsitateko azterketarako
batzordeko kidea ES438

Haur, gazte eta helduentzako eskolak, orokorrean.

2018-2019 ikasturterako aurrematrikula epea zabalik

- ◆ Haurrak eta gazteak, ingelesa, frantsesa eta alemana.
- ◆ Cambridge azterketen prestakuntzarako talde zehatzak.
- ◆ Laguntza eskolak: Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoa
- ◆ Helduentzako klase orokorrak

IKASTOLAN, DENOK GARA GU

HH 0-1eko matrikulazio aldia zabalik **maiatzaren 14tik 25era**

HH 0koak (2018an jaiotakoak) irailean eta urrian hasteko

HH 1ekoak (2017an jaiotakoak) irailean hasteko




elgoibar ikastola

www.elgoibarikastola.eus

943 744441



IKASTOLA ezagutzeko aurkezpen-bilera **maiatzaren 14an, 18:00etan**



TEKA TB6310 BITROZERAMIKA

3 gune
Touch control
Markorik gabe

199€

BOSCH WAB20066EE GARBIGAILUA

A+
5.5kg
1000RPM

299€



139€

BOSCH BBH21830L XURGAGAILUA

Kablerik gabe
36 minutuko autonomia
Edozein azaleran erabili daiteke



**MILAR
BIRE**

Ubitarte, 11
943 741 487
bire@milar.es

Urrezko binakako harri-jasotze txapelketa jokatzeko ari da Imanol Albizu 'Goikoetxe'

Plazetan da berriz ere Elgetan bizi den elgoibartarra. Gabonetako harri-jasotze kopan lehiakide izan zuen Xabier Peñagarikano bikote kide duela jokatzeko ari da orain Urrezko binakako harri-jasotze txapelketa. Urrezko binakako harri-jasotze txapelketako lehen jardunaldian, Zumaian, 9.088 kilo altxatu zituzten. Peñak zazpi jasaldi egin zituen 163 kiloko zilindro zaharrarekin hiru minutuan (1.141 kg.) Imanol Albizu *Goikoetxe*, berriz, hemeretzi aldiz jaso zuen 113 kiloko kubikoa, hiru minutuan (2.147 kg.). Elkarrekin, lau minutuko txanda librean, 58 aldiz jaso zuten 100 kiloko bola (5.800 kg.). Gainerako bikoteek zer egin zain gelditzen dira orain Imanol Albizu *Goikoetxe* eta Xabier Peñagarikano.



Hiru Txirlo Txapelketako jaurtialdia, bihar Aiaastian

Gipuzkoako Hiru Txirlo bola-joku txapelketaren zazpigarren jardunaldia jokatuko dute zapatuan (maiatzak 12), Aiaastiako bolatokian, 17:00etan. Saillkapen nagusiko bigarren eta hirugarren postuan ailegatuko dira etxeko bi bolari, San Migel taldeko Unai Loiola (28 txirlo) eta Xabier Loiola (27 txirlo). Liderrak, Gorka Etxaniz azkoitiarrak, 30 txirlo ditu botata orain arte jokatutako sei jardunaldietan.



Vicente Guineak irabazi du Mugertza krosari buruzko argazki lehiaketa

Mintxeta Atletismo Taldeak jakinarazi duenez, 26 argazki aurkeztu dituzte Mugertza krosari buruzko lau garren argazki lehiaketara. Epaimahaiak Vicente Guinea elgoibartarrak aurkeztutako argazkiari eman dio lehen saria, *Despues de la batalla* izeneko argazkiagatik. Inmaculada Ugalde zarruztarrak irabazi du bigarren saria, *Begiak itxita* argazkiagatik. Alberto Fernandezentzat izan da Herriarren Saria, *Grande Toni!* argazkiagatik.





Tecnifuellek laugarren egin zuten Elcheko taldeak irabazi zuten Espainiako Eskubaloi Txapelketan

Tecnifuellek laugarren postua eskuratu zuten maiatzaren 2tik 6ra Olaizaga kiroldegian jokatu zuten jubencil mailako Espainiako Eskubaloi Txapelketan. Elgoibartarrek, finalerdietako kanporaketa galdu eta gero, Balonmano Porriño taldearen aurka jokatu zuten brontzezko domina jokoan zegoen partida. Galiziarrek 19-27 irabazi zuten. Tecnifuelle finaletik kanpo laga zuten Grupo Assa BM Elche taldeak irabazi zuten txapelketa, finalean Madrilgo BM Sanse taldeari luzapenean irabazita. Tecnifuelleko entrenatzaile Igor

Lizarralderen iritiz, finalera ailegatu diren bi taldeak gainerako seirak baino "maila bat gorago" daude. Sanlokoak "oso pozik" daude lortutako emaitzarekin, Tecnifuelle baita Espainiako Txapelketa batean finalerdietarako sailkatu den Sanloko aurreneko taldea. Harmailetan giro aparta egon da partida guztietan, eta ia 800 lagun inguru batu dira etxeokok jokatu dituzten partidetan. Elgoibarren jokatutako txapelketako jokalaririk onenak saritu ditu Balonmano con Vn eta bi jokalaririk elgoibartarrek jaso dute errekonozimendua.


Irene Makazagak defentsa onenaren saria jaso du eta V saria Nahia Legorburuk. Txapelketako Jokalaririk Onenaren Saria Elche taldeko Patri Mendeziri eman zioten. Zortziko Finaleko argazkiak eta bideoa barren.eus-en ikus ditzakezue. Sanloko beste talde batek ere jokatuko du Espainiako Txapelketa. Kadete nesken Arilan taldeak hirugarren postua eskuratu zuten Euskadiko Txapelketan, Etxebarrin, eta maiatzaren 18tik 20ra jokatuko du Zaragozan Espainiako Txapelketako bigarren fasea.



Sanloko jokalaririk onenak onenen artean Asobal Ligan

Asobal Ligako talde onenak Errege Kopa jokatu zuten asteburuan Madrid Arenan. Bartzelonak 35-28 irabazi zion finalean Ciudad de Logroño taldeari. Errioxako taldean jokatzen duen Imanol Garcíandia urretxuarra izan zen finaleko goleatzaile nagusia, bederatzi gol sartuta; eta, bera izendatu zuten txapelketako jokalaririk onena. Sanloko Alcorta Forging Group taldetik fitxatu zuten Garcíandia errioxarrek. Etorkizun handiko jokalaria da 23 urteko gaztea. Duela gutxi Sanlotik pasatako beste jokalaririk nabarmendu zen Asobal Ligan, 28. jardunaldiko golik onena sartu baitzuen Ander Iriarte eibartarrak. Honek ere Alcorta taldean jokatu zuen, eta Zamora taldean dihardu orain.

Elgoibar Sasoian orientazio zerbitzua martxan da, sedentarismoari aurre egiteko



Bizimodu aktiboa izateko aholkuak jasoko dituzte herritarrek, debalde, dagoeneko martxan dagoen Elgoibar Sasoian orientazio zerbitzu berrian. Jarduera fisikoa sustatzea da zerbitzuaren helburu nagusia, sedentarismoari aurre egiteko. Elgoibarko Udalak eta Kirol Patronatuak jarri dute martxan, Eusko Jaurlaritzaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin. Adin guztietako elgoibartarrentzako zerbitzua izango da. Jarduera fisikoan eta Kirol Zientzietan lizentziatua den Javier Fernandez elgoibartarrak eskainiko du. Bi arreta gunee izango ditu: Mintxetako bulegoa (astelehenetan, 17:00-18:00 eta 20:00-21:00, eta eguenetan 10:30-12:30) eta Olaizaga kiroldagiko bulegoan (martitzenetan 10:30-12:30). Zerbitzua doakoa den arren, zita eskatu beharko da, honako helbide elektronikora idatzita: elgoibarsasoian@elgoibar.eus edo Olaizaga zein Mintxetako harrera guneeetan txanda eskatuta.

Morkaikoren Eguna egingo dute bihar, zortzigarrenez

Elgoibarko Mendi Itzulia, Itzulitxo eta Finalista Eguna egun berean batu zituen Morkaiko Mendi Taldeak 2011. urtean, Morkaikoren Eguna izenarekin. Aurten goa, zortzigarrena, zapatu honetan (maiatzak 12) egingo dute. Elgoibarko Itzulitxokoak 6:00etan irtengo dira Kalegoen plazatik, eta



Itzulitxokoak 9:00etan, Kalegoen plazatik, eta 10:00etan, Idotorbetik. Bigarren aukera hori aukeratzen dutenei ibilgailua Idotorben aparkatzeko eskatu diete antolatzailleek eta ez Aubixa inguruko errepide bazterrean. Azkenik, Finalista Eguneko dominak banatzeko ekitaldia 13:30ean egingo dute Kalegoen plazan.



Mayi Mujika hirugarren postuan Espainiako Kopan

Euskal selekzioko mendi lasterkariek Espainiako Kopako hirugarren proban hartu zuten parte domekan, Tarragonan: La Cursa Panxampla, Parque Natural de los Puertos-en. Mayi Mujikak hirugarren egin zuen lasterketan eta sailkapen nagusian ere hirugarren postuan dago. Malagan jokatu zuten estreinako lasterketa, Trail Cara Los Tajos, eta bosgarren egin zuen Mujikak. Segidan, Garganta de los Infiernos lasterketan hartu zuen parte, Jerten (Caceres, Espainia) eta laugarren egin zuen han. Laugarren proba Zumaiako Flysch Traila izango du, ekainaren 24an.

Haundi eta kadeteak igoera lortzeko borrokan

Futbol ligako azken jardunaldira iguera kanporaketarako sailkatzeko aukerakin ailegatu da Haundi. Sailkapenean hirugarren postuan daude, bigarren dagoen Tolosa baino puntu bat gutxiagorekin. Elgoibartarrek Arrasaten jokatuko dute azken partida bihar, 17:30ean, Mondragonen aurka. Tolosak etxean jokatuko du ordu berean, Idiazabalen aurka. Haundik irabazi eta Tolosak berdindu edo galduko balu, igoerarako kanporaketak jokatuko litzuzke. Ohorezko mailan diharduten C.D. Elgoibarreko kadeteek ere historikoa izango litzuzkeen igoera lortzeko aukera dute, Euskal Ligara. Donostiako Vasconia taldearen aurka jokatuko dute Beasaingo Loinaz futbol zelaian, bihar, 12:00etan. C.D. Elgoibarrek autobusa antolatu du zaleentzat.

Arrakastatsua izan da antzerkia herritarrengana gerturatzeko Taupadak antolatutako 'Zelukristaloideak' jardunaldia

Antzerkia jendearengana gerturatzeko saio berezia egin du asteburuan Taupada antzerki taldeak, 40. urtemugarren harira antolatu dituzten ekintzen barruan: *Zelukristaloideak*. Hiru film ezagunetako sekuentziak antzeztu dituzte herriko hiru erakusleihotan: Aguirre sastroeria izandakoan, Anton altzari dendakoan eta Gabi taberna ondoko lokalean, Masumi denda izandakoan, eta herritar ugari gerturatu ziren hiru lekutara antzerkiaren gozatzera. Zehazki, Tim Burtonen *Edward Scissorhands*, Alfred Hitchcocken *North by Northwest* eta Garry Marshalen *Pretty Woman* filmeetako sekuentziak antzeztu dituzte, berbarik egin gabe, baina musikarekin eta argiarekin lagunduta. Taupadako antzezleak, beraz, Richard Gere, Julia Roberts, Cary Grant, Wyona Ryder eta Jhonny Deppen azalean ikusteko aukera izan zuten elgoibartarrek eta baita Elgoibartik



kanpokoek ere, Euskal Telebistako informatiboetan ere egin zutelako konexioa Elgoibartik.

Akordeoi Egunean izan dira Elgoibarko Inazio Bereziartua eskolako hainbat ikasle Donostian



Elgoibarko Inazio Bereziartua musika eskolako akordeoiko ikasleek ekimen berezi batean parte hartu zuten hilaren 6an, Donostian: Akordeoiaren Nazioarteko Eguneko jardunaldian. Ekimen horretan, hala ere, musika eskolako beste zeinbait ikasleek ere parte hartu zuten: Izaro Ugalde eta Nerea Galindo (akordeoi ikasleak), Beñat Iturriaga (klarinetea), Malen Galarraga (flauta) eta Jorge Alvarez de Arcayak (baxu elektrikoa). Talde horrek bere kontzertua eskaini zuen, baina hori baino gehiago ere izan zen: Musika eskolako akordeoi taldekoek eta Sustrai akordeoikoek kontzertua eskaini zuten, Maite Janeiroren zuzendaritzapean, eta ondoren, Elgoibarko ikasleek Lasarte-Oriako Suberri taldearekin batera jo zuten, Elias Goikuriaren zuzendaritzapean. Ekitaldia, Euskal Herri osoko akordeoi joleek elkarrekin eman zuten kontzertuarekin amaitu zen.

Musikoterapiari buruzko hitzaldia, Elgoibarren

Patxi del Campo Musikoterapia Institutuko zuzendariak hitzaldia eskainiko du ostegunean, hilaren 17an, Musika Eskolako auditoriumean, 19:00etan hasita. Nualak, aniztasun funtzionala edo adimen urritasuna duten pertsonen guraso eta lagunen taldeak, eta Elgoibarko Inazio Bereziartua Musika Eskolak antolatu dute hitzaldia, eta horretarako Elgoibarko Udalaren eta Danobaten laguntza izan dute.

Elgoibarko musika eskolako saio ibiltaria

Musika eskolakoak kalera irtengo dira gaur. 20:00etan irtengo da txaranga musika eskolatik, eta bidean, musika eskolako instrumentu talde ezberdinek hainbat saio eskainiko dituzte. Kultur Etxeko atarian dultzaineroak ariko dira; Jai Alai ondoan, saxo taldekoak; udaletxeko arkupeetan, akordeoi joleak; Ipintzako arkupean, biolin joleak; eliza atarian triki eta dantza taldekoak eta musika eskolako atarian, Alabastro taldekoak.

Matrikulaldia zabalik, musika eskoletan

Elgoibarko eta Mendaroko musika eskoletan matrikulatzeko epea zabalik dago. Elgoibarkoan maiatzaren 31a arteko epea dago matrikula egiteko, eta Mendarokoan ez dute epe-mugarik zehaztu. Mendaroko Ameikutz musika eskolako arduradunek, era berean, helbide eta telefono zenbaki hauek jarri dituzte harremanetarako. 943 254 275 / 619 306 493 eta iameikutz@gmail.com eta ameikutz@gmail.com.

Galiziako Letren jaia Maalan ospatuko dute gaur hasi eta domekara bitartean



Urtetoko ohiturari jarraituz, Galiziako Letren astea antolatu du Galiziako Etxeak eta gaur hasi eta domekara arte Galiziako produktuak dastatu eta hango musikaz gozatzeko aukera izango da Elgoibarren, Maalako parkean. Aurten, Maria Victoria Moreno idazlearen omenez antolatu dute jaia, eta gaur, 19:30ean, hasiko dituzte ospakizunak, Galiziako produktuen dastaketarekin. Gaua, berriz, Tsunami orkestrak girotuko du. Bihar ere izango da hango produktuak dastatzeko aukera, bai goizez, 11:00etatik aurrera, eta bai arratsaldean, 20:00etatik aurrera. Eguerdian, berriz, Santurtziko Galizia Etxekoak kalejiran irtengo dira eta dantzaldia eskainiko dute gero, Maalan. 17:30ean, berriz, Haritz Euskal Dantzari Taldekoek eta Santurtziko Galizia Etxekoek dantza emanaldi bana eskainiko dute Maalan, eta gauean, 21:00etatik aurrera, Tsunami orkestraren doinuek hartuko dute berriro jai-gunea. Domekan, 14:30ean, bazkari ofiziala egingo dute Elgoibarko Galiza Kultur Etxearen egoitzan, herriko agintariekin, eta 20:00etan egingo duten ekitaldi berezi batekin amaituko dituzte aurtengo ospakizunak.

Euskararen jatorria aztertu dute atzerriko eta hemen bertako adituek asteburuan, Elgoibarren

Euskararen jatorriari buruzko hamabigarren biltzarra egin dute asteburuan Elgoibarko Aubixa baserrian, Euskararen Jatorria Elkarteak antolatuta. Euskara Europako ama hizkuntza izan da aurtengo biltzarreko gai nagusia, eta ekitaldian Europa osoko hizkuntzalariek hartu dute parte; guztira, 53 lagunek. Gai askoren gainean jardun dira, baina luze-zabalen toponimiaren gaia landu dute. Ponentzia guztiak ondoko webgunean argitaratu dituzte aurki: <http://euskararenjatorria.net>. Jardunaldia, baina, ez zen Aubixan egindako saiora mugatu. Izan ere, barixakuan, Kultur Etxeko hitzaldi gelan izan ziren adituak euskararen gaia hartuta. Angus J.Huck ikertzaile britainiarak, esate baterako, euskararen aztarna pan-europearra izan zuen hizpide barixakuko saioan. Huckek protohizkuntzak iker-tzen ditu, eta Europako jatorrizko ama hizkuntza zein izan daitekeen ikertzen dihardu. Biltzarrean, Euskal Herriko bertako hainbat adituek ere parte hartu zuten, besteak beste honako hauek: Jabier Goitia Blancok, Jose Mari Ugaldeak eta Juan Martin Elempuruk.



Asier Gurrutxagaren marrazkiak iragarriko du danborrada

Asier Gurrutxaga Zubiaurrek aurkeztutako lan batek irabazi du 2018ko Trinitate jaietako nagusien danborrada iragartzeko kartel lehiaketa. Irabazleak 300 euroko saria jasoko du. Sei lan aurkeztu dituzte aurtengo lehiaketarako. Andrea Arriolak, Maialen Lizarazuk, Gema Agirregomezkortak, Jairo Berbelek eta Emilia Nogalesek osatu dute epaimahia. Danborrada maiatzaren 26an izango da, 23:00etan.

“Bizi duten egoera prekariora” salatzeraz deitu dituzte gazteak Jaikik

Gazteek lan munduan bizi dituzten “zapalkuntza eta egoera prekariora” azalertzeko eta salatzeraz bideo kanpaina jarri du martxan Jaiki gazte taldeak. Elgoibarko zenbait gaztek lanean bizi dituzten egoeren testigantza jaso dituzte bideoetan. “Mugikortasun behartua, aldi baterako kontratuak, ordaindu gabeko praktikaldiak... egunerokoa dira ekoizpen modu kapitalistan, eta gazteek gara maiz kate horren begi ahulena”, azaldu dute Jaikitik, eta testigantza ematera deitu dituzte gazteak. Galdegegia jarri dute sarean testigantza ematera animatu nahi dutenek betetzeko: <https://docs.google.com/>.

LANA.....

Eskeraerak

Adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. Etxeko langile aritzeko gertu.

☎ 688 735 551

Lan bila ari naiz. Esperientzia handia adinekoak zaintzen.

☎ 631 414 947

Lan bila ari naiz. Esperientzia handia adinekoak zaintzen.

☎ 631 617 281

Adinekoak eta umeak zaintzeko edo garbiketarako prest.

☎ 693 710 696

Adinekoak gauzez zaintzeko prest.

☎ 632 733 573

Adinekoak edo umeak zaintzen nahiz garbiketetan lan egiteko prest.

☎ 636 517 025

Adinekoak edo umeak zaintzen nahiz garbiketetan lan egiteko prest.

☎ 632 779 980

Adinekoak zaintzeko edo beste edozer lanetarako prest.

☎ 612 216 458

Adinekoak zaintzeko prest. Etxeko langile, baita asteburuetan ere.

☎ 612 518 050

Adinekoak zaintzeko prest asteburuetan.

☎ 603 503 689

Adinekoak zaintzeko prest orduka.

☎ 631 620 344

Adinekoak eta umeak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko prest. Orduka zein etxeko langile moduan.

☎ 631 556 507 / 620 619 287

Adinekoak etxean zein ospitalean zaintzeko (esperientzia eta ikasketak daukat) eta elkarteak garbitzeko prest.

☎ 602 161 496

Adinekoak eta umeak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko prest. Orduka zein etxeko langile.

☎ 632 737 903

Adinekoak eta umeak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko prest. Orduka zein etxeko langile.

☎ 653 156 403

Adinekoak zaintzeko prest. Gauak pasako nituzke. Orduka aritzeko gertu.

☎ 631 891 709

Adinekoak zainduz egingo nuke lan. Berehala hasteko prest.

☎ 633 351 705

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest. Zaintzak ospitalean egiteko gertu. Esperientzia handia daukat.

☎ 680 226 039

Adinekoak zaintzen eta garbiketa lanetan aritzeko prest. Zaintza lanak gauean eta ospitalean ere egiteko gertu.

☎ 690 687 395

Baserriko lanetan, garbiketetan, pintura eta mekanika lanetan edo pertsona nagusiak zainduz arituko nintzateke. Etxeko langile egoteko prest.

☎ 688 853 894

Garbiketa lanak egiteko prest.

☎ 631 969 760

Adinekoak zaintzen eta garbiketa lanetan aritzeko prest.

☎ 638 338 816

Adinekoak zainduko nituzke. Medikuntza ikasketak ditut.

☎ 688 744 609/615 526 474

Adinekoak zaintzen eta garbiketa lanetan aritzeko prest. Orduka.

☎ 688 712 075

Adinekoak zaintzeko prest etxeko langile moduan. Paperak dauzkat.

☎ 634 709 827

Adinekoak edo umeak zaintzen edo garbiketetan lan egiteko prest.

☎ 640 742 618

Adinekoak zaintzen edo garbiketa lanetan aritzeko prest. Orduka, egunez edo gauzez.

☎ 628 238 955

Eskaintzak

Zerbitzaria behar da Mahats ardandegian lan egiteko.

☎ 646 936 092

Elgoibarko denda batean lanerako neska euskalduna behar da. Interesatuak bidali curriculumak helbide honetara: elgoibardenda@hotmail.com

ETXEBIZITZAK.....

Babes ofizialeko etxebizitza salgai Gabriel Kurutzelaegi 2an (Ikastola ondoan). 70m² + garaiea + trastelekua.

☎ 690 857 510

OSPAKIZUNAK.....

1963an jaio eta aurten 55 urte beteko dituzten elgoibartarren ospakizuna ekainaren 2an Sigman (luncha, bazkaria eta dantzaldia 55 euro/gaueko mokadutxoarekin 65 euro). Diru-sarrera maiatzaren 18rako Laboral Kutxan: ES70 3035 0007 25 0071134765

1959an jaiotako elgoibartarren ospakizuna ekainaren 9an Sigman. 13:00etan Tantanak luncha. Interesdunek 55 euro sartu maiatzaren 20a baino lehen Laboral Kutxan: 3035 0007 22 0071135234. Kontakurako: 639 760 959.

1953. urtean jaio eta aurten 65 urte beteko dituzten elgoibartarren ospakizuna ekainaren 16an izango da. 12:30ean Maalako elizan meza, gero luncha eta talde argazkia, eta jarraian bazkaria Sigma jatetxean. Interesdunek 65 euro sartu, ekainaren 5a baino lehen, Rural Kutxan: ES90 3008 0182 8837 5585 7616.

1949. urtean jaiotako bazkaria, ekainak 2. 13:00etan argazkia san bartolome elizan, jarraian luncha ibai-ondo erretegian eta 14:30etan bazkaria SIGMA jatetxean. Izen emateko azken eguna maiatzak 31 izango da, 55 € -ko ingresoa la caixa kontu korronte honetan. ES18 2100 41 68752100335788

BESTELAKOAK.....

Giltzatak berdindun giltza sorta deskuidaturik eraman dute. Berreskuratu nahi duenak deitu eta ekarri beste giltza multzoa (637 413 731/943 740 762).



administradores
Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Empresas
Instituto Vasco de Administradores de Empresas

ROSA Mª PINTADO

Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749


660 969 679
rosapf@telefonica.net

Etxejabeen komunitate batean, oraingo atezain-automatikoak hondatuta dagoenez, bideo-atezain batekin ordezkatzea adostu dute. Merkataritza-lokaletakoek orain arte ordaindu dituzte atezain-automatikoaren mantenu eta konponketak, nahiz eta beraiek ez erabili. Jakin nahi nuke ea erabiltzeko eskubiderik ba ote duten eta hala izatekotan gastuak zeinek ordaindu beharko litzuzkeen.

Atezain-automatikoak bideo-atezain batekin aldatzea administrazio kontu bat baino ez da. Ezin da interes orokorreko zerbitzutzat hartu, oraingoa, efizienteago batekin ordezkatzea edo egokitzea da egingo dutena. Hori sarrera kontrolatzeko eta eraikina zaintzeko izango da.

Gastuak fondo komunitatik ordaindu badira, lokaleko jabeak eskubidea izan behar luke bideo-atezaina erabiltzeko. Baina komunitateak horrela izatea nahi ez badu, lokaleko zatia ordaindutakotik deskontatu beharko luke eta kopurua erabiltzaileek bakarrik ordainduko luketen fondo gisa gehitu. Horrela, jabe erabiltzaileek bakarrik ordainduko lukete.

Aholkua: Zerbitzua erabiltzeko azpiegitura(kanalizazioa, kableak jartzea...) gastuak komunitateak ordaindu beharko litzuzke. Baina teknikoki zerbitzua bideratzea ezinezkoa bada gastuetatik libre geldituko litzateke eta ez luke zerbitzua erabiltzerik izango.

Enpresa kolaboratzailea:  P. M. Urruzuno kalea, 6 - Elgoibar



Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARREneko bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.



Zorionak, **Nabeth**, maiatzaren 2an 10 urte bete zenituelako. Amaren partetik muxu handi bat.



Zorionak, **Saioa!** 10 urte bete dituzu dagoeneko. Patxo haundi bat etxeko danon partez eta segi beti bezain alai.



Zorionak, **June**, zure 4. urtebetetzean. Muxu bat familiako partetik.



Zorionak, **Nora**, 4 urte bete dituzulako. Muxu potolo bat etxeko partetik.



Lau urte handi gure piratak! Zorionak, **Eneko**, etxeko guztien eta bereziki Laiaren partetik! Pa potolo bat!



Zorionak, **June**, Dagoeneko 7 urte, neska handi! Muxu handi bat etxeko denon partetik. Maite zaitugu!



Zorionak, **Mikel**. Maiatzaren 8an 6 urte. Muxu handi bat etxeko partetik.



Zorionak, **Naroa**. Muxu asko familia guztiaren partetik.



Zorionak, **Nerea**, maiatzaren 1ean 8 urte bete zenituelako. Familiako eta bereziki Nerea eta Ibairen partetik.



Zorionak, **Erik**. Ondo pasa zure jaunartze egunean. Besarkada handi bat izeko Maite eta Iratxeren partetik.



Zorionak, **Victor**. Pozez eta ilusioz betetako eguna pasa gurekin. Maitasunez, familiak.



Zorionak, **Peru!** Familiako partetik patxo handi bat, maillia!



Zorionak, **amama Isabel** eta **Janire**, maiatzaren 7an eta 8an zuen urtebetetze eguna izan zelako. 3 urtetxo Janire! Oso ondo pasa genuen. Muxuak familiako partetik.



Zorionak, **bikote!** 50 urte elkarrekin! Muxu handi bat familia guztiaren partetik.

Erretratu bakarreko agurra: 4'50€. Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarreko agurra: 3'50€. Argazki bikoitza: 6€. Hirukoitza: 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€

Argazkiak eguazten eguerdia (12:00etarako) baino lehen ekarri behar dira BARREneko bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.

INER CARAVAN
 Itxaspe Auzoa, 3
 20829 Itziar (Gipuzkoa)
 943-05 08 03 • 664 68 58 97
www.inercaravan.eus

- Autokarabonen, karabonen eta furgonetan solmentu, alakairua eta konponketa.
- Tailer zerbitzua, denbora luzerako aparkalekua, garbiketarako gunea, uren karga eta deskarga.
- Karabaningerako eta kanpinerako osagarrien denda.
- Homologazioak, kanpinerako egokiltzapenak...
- 4000m² baino gehiagoko instalazioak.
- Mota guztielako ibilgailuen konponketa.



Uzuri ELGOIBAR - DEBA
 optika audio

San Frantzisko, 21 - Elgoibar
 Tel.: 943 740 359 www.uzurioptika.com

EGUZKITAKO BETAURREKOETAN AUKERA ZABALA.

19€ gehiagogatik GRADUATU ITZAZU!



* Kontsultatu baldintzak

11 BARIXAKUA

17:30 Kiribilen saioa. Antolatzailea: Elgoibarko Izarra. Kalegoen plazan.

20:30 Balleta: *Centenario de Bernstein* (aurrez grabatuta). Herriko Antzokian.

12 ZAPATUA

MORKAIKO EGUNA

06:00 Elgoibarko Itzuliko irteera. Kalegoen plazatik.

09:00 Elgoibarko Itzulitxoaren irteera Kalegoen plazatik. Idotorbetik abiatzen direnak, 10:00etan).

10:00 Elgoibarko Itzulitxokoak Aiasian Migelen hamarretakoa.

13:00 Elgoibarko Itzuliko bazkaria. Elizako arkupeetan.

13:30 Finalista Eguneko dominen banaketa umeentzat. Kalegoen plazan.

14:00 Umeen bazkaria. Elizako arkupeetan.

15:00 Umeentzako jolasak Atxutxia-maikakoekin. Kalegoen plazan.

16:00 Rokodromoa.

17:00 Morkaiko argazkia (partaide eta mendizaleak). Kalegoen plazan.

11:00-13:30 Arku tiraketa jardunaldia. Mendaroko pilotalekuan.

lea: Jabekuntza Tailerrak. Gotzon Garate Udal Liburutegian

15 MARTITZENA

18:00 Literatura tailerra: *Paseos con Clara por Alemania*. Autorea: Fernando Aranburu. Dinamizatzailea: Consuelo Carrere. Antolatzailea: Haizea. Gotzon Garate Udal Liburutegia.

17 EGUENA

19:00 Hitzaldia: Musikoterapia. Hizlaria: Patxi del Campo. Musika Eskolako auditoriumean. Antolatzailea: Nuala eta Musika Eskola

20:00 *Erlijioa mundu moderno eta postmodernoa bidegurutzean*. Hizlaria: Jose Cruz Igartua. Antolatzailea: Isiltasun Eskola. Kultur Etxean.

18 BARIXAKUA

17:00 Ludotekako IX. Aste Nagusiko txupinazoa: pregoia, buruhandiak, zenezikletak eta jokoak. Maalan.

18:30 Erakusketa. Egur arte tailerreko ikasleen lanak. Astelehenetik zapatara 18:30etik 20:30era. Antolatzailea: Egur. Maiatzaren 26ra arte. Kultur Etxeko erakusketa gelan.

21:30 Bideo foruma: *Solas*. Dinamizatzailea: Loredi Salegi. Antolatzailea: Haizea. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

22:00 Kontzertua: Bas(h)oan. Kultur Etxeko sotoan. Antolatzailea: Sinüose.

GALIZIAKO LETREN ASTEA

Maiatzak 11, 12 eta 13

11, BARIXAKUA

19:30 Galiziako Letren Jairen inaugurazioa M. Victoria Morenoren omenez. Maalan.

Ondoren, Galiziako muskuiuen dastaketa, doan. Maalan.

20:00-21:00 Tsunami orkestraren emanaldia. Maalan.

23:00 Tsunami orkestrak girotutako dantzaldia. Maalan.

12, ZAPATUA

11:00 Galiziako produktu tipikoak dastatzea. Maalan

12:00 Casa de Galiza de Santurtzi taldearen kalejira eta ekitaldia. Maalan.

17:30 Talde herrikoien ekitaldia. Casa de Galiza de Santurtzi eta Haritz Euskal Dantzari Taldea. Maalan.

20:00 Galiziako produktu tipikoak dastatzea. Maalan.

20:00-21:00 Tsunami orkestraren emanaldia. Maalan.

23:00 Tsunami orkestrak girotutako dantzaldia. Maalan.

13, DOMEKA

11:00 Galiziako produktu tipikoak dastatzea. Maalan.

14:30 Bazkaria, senitartean eta agintariekin. Elgoibarko Galiza Kultur Etxearen egoitzan.

20:00 Galiziako Letren Eguneko ekitaldien amaiera.

13 DOMEKA

12:30 Kontzertua: Elgoibarko Udal Musika Banda. Herriko Antzokian.

14 ASTELEHENA

12:30 Emakumeen tailerra: *Hazkunde pertsonala irakurketaren bitartez*. Dinamizatzailea: Loredi Salegi. Antolatzaile-



MEKANOSA
Errosario, 27
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX



PINTURA ETA DEKORAZIOA
CORDON VILARCHAO
cordonvilarchao@telefonica.net
San Roke, 7 - Olasope, 18, Pab. 25-26
943 740 570 / 636 98 61 62

Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK							
Egunez: 09:00-20:00		Iluntzean: 20:00-22:00		Larunbatak: 9:00-14:00 (*)			
11 BARIKAKUA	12 ZAPATUA	13 DOMEKA	14 ASTELEHENA	15 MARTITZENA	16 EGUAZTENA	17 EGUENA	18 BARIKAKUA
Egunez *Fernandez	Egunez Yudego	Egunez Yudego	Egunez *Oruesagasti	Egunez Barrenetxea	Egunez *Ibañez	Egunez Garitaonandia	Egunez Etxeberria
Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Yudego	Iluntzean Yudego	Iluntzean Etxeberria	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Yudego	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Etxeberria

*** Fernandez:**
Herriko enparantza 4,
Garagartza (Mendaro)
943 756 142

*** Ibañez:**
Rekalde, 1 (Soraluze)
943 751 638

*** Oruesagasti:**
Kalebarren, 9 (Soraluze)
943 751 384

Urte guztian, gabez: 22:00-09:00
La Fuente - Sostoa kalea, 10 (Eibar)
943 254 410

Zinea (Herriko antzokian)




'La casa torcida'

12 Zapatua, 19:00/22:15

(VOS)

13 Domeka, 19:00

14 Astelehena,, 21:30



"Destinos"

(Ongarri Zine Kluba)

17 Eguena, 21:30

Apirilean hildakoak

- **Dorotea Berezibar Ibabe**
90 urte, apirilak 6
- **Nieves Orbea Egia**
79 urte, apirilak 7
- **Gloria Arzallus Egia**
92 urte, apirilak 20
- **Maria Luisa Lejardi Ondarra**
65 urte, apirilak 21
- **Justina Jauregi Urzelai**
88 urte, apirilak 22
- **Ceferino Gonzalez Velasco**
80 urte, apirilak 23
- **Santiago Arrese Zengotita**
53 urte, apirilak 29



ETXEBERRIA

EHORZKETA-BEILATOKIA

943 741 327 (24 orduz)

635 756 295

629 635 203

Santa Klara, 16 - Elgoibar
info@funerariaetxeberria.com
www.funerariaetxeberria.com

Kutxak, trasladoak eta koroak.
 Norbanakoei eta konpainiei zuzenduriko zerbitzuak.
 Erietxe zentruetan zerbitzuak.



1966

kasturte bukaeran txangoak eta ikuskizunak egiten dituzte umeeek gaur egun. Garai batean, ordea, bestelako ekintzekin ospatzen zuten; bonboi izozkiaren egunarekin, hain zuzen ere. Guztiek jaten zuten izozkia udaren atarian oporrei ongi-etorria egiteko. Lucia Etxabe Gabilondok ekarritako argazkian ageri dira orduko ikasleak.

Goitik hasita: Blanca Larrañaga, Itziar Ulazia, Mari Jose Ondarre, ezezaguna, Maria Pilar Arriola eta Myriam Villasante.

Bigarren ilaran: Ezezaguna, Beatriz Pagola, Mari Jose Ulazia, Ana Zabaleta, Trini Ipiña, M. Tere Irazo eta Lurdes Ramirez.

Hirugarren ilaran: Ana San Millan, Aintzane Unzilla, Lutxi Burgos, Mari Carmen Barroso, Argiñe Egia eta Ana Casquero.

Laugarren ilaran: Maria Dolores Arozena, Maria Dolores Etxeberria, M. Sol Pedron, ezezaguna, Arrate Iriondo, Rosa Zubizarreta eta Lucia Etxabe. **Bosgarren ilaran:** Itziar Alzibar, M. Jesus Eguren, Bego Arizmendi eta Adela Romero. **Seigarren ilaran:** Mari Tere Gonzalez, Maite Olazabal, Inma Azkue eta Izaskun Zialtzeta.



2012ko maiatzaren 11n hil zen.

VI. URTEURRENA

Angel Mari Arregi Cano

***Gure ondotik
joan zara,
baina betiko
izango zaitugu
gure bihotzetan.***

Familiakoak



2012ko maiatzaren 7an hil zen.

VI. URTEURRENA

Itziar Loiola Arrillaga

***Gure ondotik joan zinela
sei urte pasa zaizkigu.
Zuk utzitako hutsuneakin
bihotza minduta dugu.
Zure irribarre eta alaitasunaz
gogoan bizi gara gu.
Zeruko izarrik argitsuena
Itziar, maite zaitugu.***

Familiakoak



2012ko maiatzaren 7an hil zen.

VI. URTEURRENA

Itziar Loiola Arrillaga

***Nola agurtu gure laguna
hamar lerro eskaxetan
ezin sinistu, ezin ulertu
hor gabiltza buruketan
emazte, ama, alaba ona
neska alaia benetan
zure taupadak entzuten dira
kuadrillako bihotzetan
beti aurkituko dugu elkar
Anbotoko zelaietan.***

Kuadrillako lagunak



Gremioen gida

Aroztegiak
Elektrizitatea
Igeltseritza
Iturgintza
Leihoak
Pintura

ITURGINTZA

PAGOAGA S.A.
BULEGOA ETA ERAKUSKETA
Pedro Migel Uruzuno, 8
Tel.: 943 740 512 / Faxa: 943 743 585
bienda@pagoagasa.com
www.pagoagasa.com

BILTEGIA
San Antolin, 13 - Tel.: 943 740 279
taller@pagoagasa.com

ELGOIBAR

FONTANERIA
Ibámar
ITURGINTZA

San Roke 10-A, behea B
Elgoibar
Floren Cid: 647 463 436
ibamar@euskalnet.net

ONGI Iturgintza

Pedro Muguruza Etorbidea, 11
ELGOIBAR
Tel.: 943 254 522
Faxa: 943 254 523
ongi@ongielgoibar.com
www.ongielgoibar.com

TELLABIDE
ITURGINTZA

Azpilgoeta 7 behea - Mendaro
Tel.: 943 755 062 / 607 755 062
iturgintzatefallabide@hotmail.com

SANTANA
Igor Santana
ITURGINTZA ETA INSTALAZIOAK S.L.

Urazandi kalea 17, behea
Elgoibar
943 740 530 / 605 714 905
santana.iturgintza@gmail.com

AROSZTEGIAK

Aroztegia Carpinteria
ASIMA
Ermuaranbide, 18 - Elgoibar

687 150 226
650 026 631
636 886 322
943 744 225
asimaaroztegia@gmail.com

Ulazia
AROSZTEGIA ETA ENBALAJEAK
Albitxuri industriagunea, 1-O/ 1-P
943 740 547

BIENA S.L.
AROSZTEGIA

Ermuaranbide, 12-14-16
tel/fax. 943 743 116
www.biena.eus
info@bicna.eus

IMAR
AROSZTEGIA

Olaso industriagunea, 17 behea
943 531 471
609 054 978
carpinteriaimar@hotmail.com

iraolagoitia
aroztegia · altzariak · etxe-aldaketak

Kurutx-gain Industriagunea, 9
20850 Mendaro
Tel.: 943 756 112 / 636 497 485
www.iraolagoitia.com

ELEKTRIZITATEA

CARRANZA,
ELEKTRIZITATEA

Uparitzaga 10, 6.B
Elgoibar
karranzaj@icmail.com

Tel.: 943 741 280
Jose Luis: 626 555 999

egoluz
ELEKTRIZITATEA S.L.

Raimon: 677 512 462
Ego-Gain, 9 AC
20600 EIBAR

Andres: 630 957 345
Pedro Migel Uruzuno, 14 behea
20870 ELGOIBAR

Bulegoa: 943 200 697
ego.luz@hotmail.com

iparelek S.L.
elektrizitatea

Kilimon hiribidea, 1 - Mendaro
943 530 356

iparelek@gmail.com
iparelek@iparelek.com

LEIHOAK

LODOSO
LEIHOAK

SIGMA INDUSTRIAGUNEA, 223
lodosofj@gmail.com
Tel.: 943 74 34 90

IGELTSERITZA

A.Garate
Era guztietako
igeltseritza lanak
egiten aditua
angelmgarate@gmail.com
Santa Ana kalea, 28 behea - 2. zkia
Elgoibar

610 226 651

E. ARANDIA
ERREFORMA ETA LEIHOAK

Urazandi, 22 behea - Elgoibar

Tel.: 605 705 204

Gremioen arteko
koordinazioa.
Pladurarekin ere
lan egiten dugu.

PINTURA

BIOK
dekorazioa

Uparitzaga, 14 - Elgoibar
943 741 552
606 431 120
biok@biokdekorazioa.com